

OHIKO GALDERAK 2021-2022 UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA (USE)

➤ Batxilergoko ikasle guztiak matrikulatu behar dira?	Unibertsitatean sartu nahi duenak matrikula egin behar du.
➤ Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USEra) ez aurkeztea erabakitzen badut, zer egin behar dut?	Azkenean erabakitzen baduzu azterketara ez aurkeztea, idatziz matrikula bertan behera uztea eskatu beharko diozu Sarrera Bulegoari edo Campuseko Errektoreordetzei, beti ere 2021eko ekainaren 7a (ohiko deialdia) edo 2021eko uztailaren 5a (ezohiko deialdia) baino lehen.
➤ Zer gertatzen da azterketara ez banoa eta matrikula balio-gabetzen ez badut?	Tasa ordaindu behar duzu. Azterketara ez joanagatik matrikula ez zaizu balio-gabetuko.
➤ Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioaren (USEren) matrikula ordaindu ezean....	Unibertsitateak zorduntzat joko zaitu, eta ezin izango zara unibertsitateko zerbitzuez baliatu harik eta ordaindu arte.
➤ Zenbat balio du Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioaren (USEren) matrikulak?	Deialdi bakoitzean: 86,33 € Matrikula arrunta 43,17€ Familia ugari orokorrekoa 0,00 € Familia ugari bereziko, eta bestelako kasuak
➤ Ohiko deialdian gaingitzen ez badut.....	Orduan matrikula egin dezakezu ezohiko deialdian web orriaren bidez www.ehu.eus
➤ Zenbat fase ditu USEk?	USEk bi zati ditu: sarbide fasea eta onarpen fasea. Sarbide fasea derrigorrezkoa da eta onarpen fasea, berriz, borondatezkoa.
➤ Lanbide Heziketako ikaslea naiz. USEra aurkez naiteke?	Bai, onarpen fasera , nota hobetzeko
➤ Nola dago egituratuta sarbide fasea?	1. ariketa: Gaztelania eta Literatura Ilko 2. ariketa: Euskara eta Literatura Ilko 3. ariketa: Espainiako historia 4. ariketa: Azterriko hizkuntza II (alemana, frantsesa edo ingelesa). 5. ariketa: Batzilergoko 2. mailako derrigorrezko modalitateko irakasgaia.
➤ Nola dago egituratuta onarpen fasea?	Ikasleak, gehienez, lau irakasgai aukeratu ahal izango ditu: hautazko enborrekoak izanik Batxilergoan aukeratutako modalitatekoak ez direnak. Irakasgai hauek ikasi nahi duten ikasketekin lotuta egongo dira.
➤ Zertarako balio du onarpen fasera aurkezteak?	Onarpen nota igotzeko.
➤ Zenbat denbora dut azterketak egiteko?	Azterketa bakoitza egiteko ordu eta erdi izango duzu, eta azterketen arteko tartea 45 minutukoa izango da.
➤ Zer gertatzen da bi azterketa ordu berean badauzkat?	Bi horiek bata bestearen ostean egingo dituzu, ikasgelatik irten gabe, epaimahai berarekin eta dagokien egunean. Dena dela, zure egoeraren berri eman beharko diozu epaimahaiari.
➤ Nola kalifikatzen dira sarbide faseko azterketak?	Otik 10era kalifikatzen dira, bi dezimalekin. Sarbide fasea azterketa guztien kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da.
➤ Nola kalifikatzen dira onarpen faseko azterketak?	Irakasgaiak Otik 10era kalifikatzen dira, bi dezimalekin. Irakasgaia gaingitzeko, 5 edo gehiago atera behar da. Gaingitu ezean, ezin daiteke kontutan hartu onarpen notarako.
➤ Noiz ematen da USE gaingitutzat?	Batzilergoko batz besteko notaren %60aren eta sarbide faseko kalifikazioaren %40aren batz besteko haztatua 5 edo gehiago denean. Sarbide fasean, gutxienez, 4 puntu lortu behar dira.
➤ Zer gertatzen da USEren sarbide fasea gaingitzen ez badut?	USEren sarbide fasea gaingitzen ez baduzu, ezin izango zara sartu bide horretatik graduko ikasketetara.
➤ Onarpen fasean irakasgairik bat gaingitzen badut, balio al dit nota horrek sarbide fasea gaingitzen dudanerako?	EZ. Onarpen faseko ariketak gaingitzeak bakarrik izango du ondorioz baldin eta sarbide fasea deialdi berean edo aurrekoetan gaingitzen baduzu.
➤ Nota igotzeko onarpen faseko irakasgai guztiek balio al didate?	EZ. Ezerrita daudenak bakarrik (ikusi Hastapen Koefizienteak, 12-14 orr.)

➤ USEn, zenbat deialdi egiten dira urtean eta zenbat aldiz aurkez naiteke azterketara?	Bi deialdi: ekainean eta uztailean Hainbat deialditara aurkeztu ahalko zara, sarbide faseko kalifikazioa hobetzeko eta/edo onarpen faseko edozein irakasgaiko kalifikazioa hobetzeko.
➤ Noiz arteko balioa dute USEko notak?	Sarbide faseak mugagabeko balioa dauka. Onarpen fasekoak bi ikasturterako balio du, sarrera ebaluazioa gainditzen duzunik hasita.
➤ USEa egin dut, baina sarbide nota hobetu nahi nuke. Zer egin dezaket?	Berrir egin beharko duzu USEko sarbide fasea edo, bestela, onarpen fasea baino ez, hobetu nahi dituzun irakasgaietarako, kontuan izanda ezarritako parametroak eta egin nahi duzun gradua.
➤ Ez banago ados kalifikazioarekin, zer egin dezaket?	Epaimahaiaren aurrean berrikuspen eskaria aurkeztu dezakezu.
➤ Berrikuspena eskatzeko epea	3 egun baliodunekoa izango da , kalifikazioak argitaratzen denetik kontatzen hasita.
➤ Azterketa zuzenduta ikusteko eskubidea dut?	Azterketak berrikusteko prozesua amaitu ondoren eta beti epearen barruan eskaera eginda, azterketa ikusteko eskubidea izango duzu.
➤ ¿Noiz eskatu ahal izango dut azterketa ikustea?	Ohiko deialdia: 2021eko ekainaren 29a eta 30a Ezohiko deialdia: 2021eko uztailearen 26a eta 27a
➤ Unibertsitateko ikasketak egiteko onarpen nota	<u>ONARPEN NOTA (GON) = 0,6*BK + 0,4*SFK + C1*M1 + C2*M2 + C3*M3</u> BK = Batxilergoko batez besteko nota SFK = Sarbide faseko kalifikazioa M1, M2, M3 = Gaitutako irakasgaiek kalifikazioak. C1, C2 y C3 = Haztapien koefizienteak.
➤ Beste unibertsitate batetan onartu naute, eta espediente lekuz aldatu behar dudala esan didate. Zer egin behar dut?	Gure web orrian bidez (www.ehu.eus kudeaketa egin behar duzu, ondoko agiriak - Beste unibertsitateko onarpen gutuna edo matrikularen agiria - Tasak murrizteko eskubidea baduzu, egiaztagiri eguneratua - Ordaindu beharreko tasen ordainagiria - NAN
➤ Batxilergoko ikastetxe batean ez banago matrikulatuta, non egin behar dut unibertsitatara sartzeko ebaluazioaren matrikula?	Gure web orrian: www.ehu.eus Ohiko deialdia: 2021eko maiatzaren 19tik 30era Ezohiko deialdia: 2021eko ekainaren 23tik 30era

OHIKO GALDERAK 2021-2022

AURREINSKRIPZIOA

➤ Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen bidez unibertsitaterako izena eman eta gero, beste gestioen bat egin behar dut UPV/EHU n sartzeko?	USE gaingidituz gero, interneten bidez Unibertsitateko web orrian, eskaria berretsi egin beharko duzu, honako egun hauetan: www.ehu.eus - 2021eko ekainaren 17tik uztailaren 4ra: ohiko deialdia - 2021eko uztailaren 19tik 25era: ezohiko deialdia Izena emateko eskaria BERRETSI ezean ikasleak ezin izango du matrikula egin
➤ Zer egin behar dut izena emateko eskaria berresteko?	Interneten bidez berretsi dezakezu.
➤ Zenbat gradu eska dezaket?	Gehienez 8 gradu eska ditzakezu, lehentasun ordena zorrotzean.
➤ Ordena garrantzitsua da?	Bai, oso garrantzitsua, izan ere, onarpena ikasleak markatutako ordenaren arabera egiten da.
➤ Zer gertatzen da 2. aukeran onartzen banaute eta nik lehenengoa nahi badut?	Onartua izan zaren graduari matrikulatu behar zara, interesatzen bazaizu; plaza hutsen itxaron-zerrendan geldituz eta hurrengo onarpen zerrendan agertuko dira.
➤ Zelan jakin nezake noiz egin behar dudun unibertsitaterako matrikula?	ONARTUEN ZERRENDAK argitaratuko dira (www.ehu.eus), matrikula egiteko egun eta orduaren berri emateko. Etxera ez da gutunik bidaliko
➤ Badago itxarote zerrendarik?	Bai.
➤ Itzulpengintza eta Interpretazio graduari matrikulatu nahi badut, nahikoa da izena emateko eskariarekin?	Ez, izena emateaz gainera, Itzulpengintza eta Interpretazio graduari sartzeko proba espezifikoa gaingiditu beharko duzu. Proba horietako matrikula egiteko epea 2021eko maiatzaren 10etik 17ra izango da, egun bi horiek barne, Gasteizko Letren Fakultatean.
➤ Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzien graduari matrikulatu nahi badut, nahikoa da izena emateko eskariarekin?	Ez, izena emateaz gainera, Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzien graduari sartzeko proba espezifikoa gaingiditu beharko duzu. Proba horietako matrikula egiteko epea 2021eko apirilaren 7tik 15era izango da, egun bi horiek barne, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean.
➤ Medikuntzako Gradua euskaraz egin nahi badut, nahikoa da izena emateko eskariarekin?	Ez, izena emateaz gain, euskarazko B2 maila egiaztatzea eskatzen da.
➤ Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Gradua egin nahi badut, nahikoa ka izena emateko eskariarekin?	Ez, izena emateaz gain, euskarazko B2 maila egiaztatzea eskatzen da.
➤ Ez dut behin behineko izena eman, nola eta noiz egin behar dut izena emateko eskaria?	Izena emateko epea 2021eko ekainaren 17tik uztailaren 4ra izango da. Eskaria web orrian egin daiteke agertzen den formularioa betetuz eta dagokion dokumentazioa jarritz www.ehu.eus
➤ Ea onartua nagoen jakiteko, zer egin behar dut?	Onartuen zerrendak web orrian www.ehu.eus argitaratuko dira.

➤ Nolakoa da ikasleak UPV/EHUn onartzeko prozedura?	- Ikasleak onarpen notaren arabera ordenatzen dira eskatutako grado bakoitzean. - Onartuen zerrenda bat argitaratzen da eta zerrenda horretan ikasleari plaza bakarra esleitzen zaio gradu bakarrean. Zerrenda argitaratzearekin batera, ikasleari hitzordua jartzen zaio matrikula dadin. Une horretatik aurrera, ikaslea: - Itxaron zerrendan geratzen da onartua izan den titulazioaren aurretik eskatuak zituen titulazioetan. - Baztertua geratzen da onartua izan den titulazioaren ondotik eskatuak zituen titulazioetan. - Ikasle bat titulazio batean onartu badute eta ikasleak ikasketa horiek egin nahi baditu, adierazten zaion egunean egin behar du matrikula. EZ badu matrikula egiten, plazari uko egiten diola ulertzen da. Itxaron zerrendetatik ez dute inolaz era kanporatuko. Lehengo matrikulaldia bukatutakoan, hutsik dauden plazak errekupeartzen dira, itxaron zerrendan dauden ikasleei esleitzen zaizkie eta onartuen zerrenda berri bat argitaratzen da eta horrela, plaza guztiak esleitu arte.
➤ Noiz arte egon naiteke itxaron zerrendan?	- Gradua ixten den arte.
➤ Goi mailako prestakuntza ziklo bateko ikaslea banaiz, gradu guztietarako sarbidea izan al dezaket?	BAI, baina Graduaren jakintza adarrarekin lotutako profesioetako prestakuntza zikloren bat egin duten ikasleek lehentasuna izango dute mota horretako ziklorik egin ez duten ikasleen aldean.
➤ Goi mailako prestakuntza ziklo bateko ikaslea banaiz, zein da nire onarpen nota?	ONARPEN NOTA (GON)= $USN+C1*M1+C2*M2+C3*M3$ GON = Heziketa zikloko batez besteko nota. M1, M2 y M3 = Onarpen nota hoberena ematen duten gainditutako irakasgaien kalifikazioak C1, C2 y C3 = Haztatze parametroak.
➤ Gradu batean baino gehiagotan onartuta egon naiteke?	Ez, onarpena bakarrik da gradu baterako zuk eskarian zehaztutako hurrenkeraren arabera, baina onartua izango ahal zara betiere beste ikasketa batzutan itxaron zerrendan egonez gero.
➤ Nola jakin dezaket zein egoeratan dagoen UPV/EHUn sartzeko egin dudana eskaera?	Web orrian begiratu behar duzu www.ehu.eus Izena emateko eskariaren kontsulta.

OHIKO GALDERAK

2021-2022

1. MAILARAKO MATRIKULA

➤ Zer gertatzen da matrikula egiteko hitzordura berandu helduz gero edo data pasatuz gero?	Dagokizun egunean ez bazoaz matrikula egitera plazari uko egiten diozula konsideratuko da eta gal dezakezu beste onarpen berri bat egin bada.
➤ Noiz egin dezaket behin-behineko matrikula?	Dokumentu bidez (beste unibertsitate publiko batean egindako eskaria aurkeztuz) egiaztatzen baduzu beste unibertsitate publiko batean onartzearen zain zaudela, behin-behineko matrikula egin ahal izango duzu.
➤ Zeintzuk dokumentu behar ditut matrikulatzeko?	- NAN edo pasaportearen fotokopia. - Argazki bat, atzeko aldean izena eta abizenak dituen. - Matrikularen ordainketa helbideratzeko agiria. - Kasuan-kasu, matrikulako prezio publikoetatik salbuetsita egoteko edo prezio murriztua ordaintzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria, ikasketa zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzeko Eusko Jaurlaritzak onartzen duen aginduaren arabera (pertsonek ezinduak, familia ugariak, ekintza terroristen biktimak, genero-indarkeria eta bestelako kasuak) - kalifikazio-txartela
➤ Matrikula ordaintzeko zeintzuk modalitate daude UPV/EHUn?	- Bankuko kontu bat helbideratzea (2 epe gehienez ere) - Ordainagiri pertsonalizatua/bankuko txartela (2 epe gehienez ere)
➤ Joan daiteke beste pertsona bat nire ordeztatzeko matrikula egitera?	Bai, beti ere ikaslearen ordeztatzeko pertsona idatziz baimendua bada eta hitzorduaren egunean eta orduan agertzen bada behar diren dokumentuekin.
➤ Non egin behar dut matrikula?	Onarpen-zerrendan agertzen den lekuan.